



## Gasherbrum II, Ibarbia, Urkola eta Urangaren lehen zortzimilakoa

**ZIZURKIL** ▶ Hiru mendizaleek udan buruturiko espedizioan egin zuten gailurra

**HELBURUA** ▶ Gailurra ez zuten jomuga, baina «aukera eta zortea» alde izan zituzten ▶ 4-5



Ezker-eskuin: Kandido Uranga, Aitziber Ibarbia eta Iñaki Urkola. LEIRE MONTES



Oinatz Bengoetxea. HITZA

**OINATZ BENGOTXEA** ▶ PILOTARIA

«Partida dudanetan mendira joan ohi naiz beti»

Gaur, 17:45ean jokatu du lau t'erdiko Txapelketan pilotari leitzararak, Capellanen aurka ▶ 2

TOLOSA ▶

## San Estebango XIX. Kultur Astea ekitaldiz beterik

Hilaren 17tik 22ra arte askotariko ekitaldiak antolatu dituzte ▶ 3

TOLOSA ▶

## Hegoalde ezin izan zuen Mostoles txapeldunaren aurka

Bihar jokatu du hurrengo partida areto futbol taldeak, Madrilen ▶ 3



Mostolesen aurkako partidako une bat. HITZA

OINATZ BENGOTXEA ▶ PILOTARIA

# «Partida dudan egunean, jeiki eta mendira joaten naiz beti»

Udan gelditu gabe ibili da Bengoetxea VI.a eta entrenatzeko astirik izan ez duen arren, larunbateko partidaren aurrean lasai agertu da pilotaria

NAIARA GARZIA

Gaur arratsaldean 17:45ean jokatu du Lau térdiko Txapelketa Bengoetxea VI.ak Capellan errioxarraren aurka Labriten. Partidaren bezperan berarekin egin dugu hitzordua eta pilotaren inguruan zenbait gauza kontatu dizkigu.

**Herenegun Abelek jokatuako partida zer iruditu zitzaizun?**

Nire ustez dena ongi egin zuen, ez zion Peñagarikanori jokatzeko utzi eta perfektu jokatu zuen. Bat ongi aritzen bada, bestea ez da normalean oso ongi aritzen eta hori gertatu zen herenegun Bergaran. Abelek argi utzi zuen maila handia daukela.

**4 t'erdiko distantzian gustura sentitzen al zara?**

Bai, nire ustez nahiko distantzia polita da.

**Zer moduz joan zaizkizu entrenamenduak?**

Egia esanda ez dut entrenatzeko denbora gehiegi izan. Uda gogorra izan dut eta partida asko jokatu ditut. Bi entrenamendu besterik ez ditut egin.

**Udan zertan jokatu duzu?**

Bikoteka. Orokorrean urtean zehar gehienbat bikoteka ibiltzen gara.

**Non entrentzen duzu normalean?**

Udan astero hiru bat partida izaten ditugunez ez dugu entrenatzeko denborarik izaten. Neguan, berriz, Tolosan eta Gasteizen ibiltzen gara. Pilotaz ibiltzeaz gain gero fisikoki lana bakoitzak bere aldetik egiten dugu.

**Nola prestatzen duzu zure burua zentzu horretan?**

Astean behin pesak egiten ditut, korrika egitera ere joaten naiz. Horretaz gain ia egunero mendira joateko ohitura dut.

**Zein mendi duzu gustokoena? Leitzalarrera joaten naiz normalean, han oso gustura sentitzen naiz.**

**Partida duzun egunean zer da nahi eta nahi ez egin behar izaten duzuna?**

Partida dudan egunean bertan jeiki eta egiten dudana aurreko gauza mendira joatea da.

**Materiala asteazkenean aukeratu zenuten. Pozik gelditu zinen?**

Bai. Capellane pilotari pisuxekoak eta motelxeagoak auke-



J. SAIZAR

## DATUAK ▶

### DATU PERTSONALAK

**Izena.** Oinatz Bengoetxea  
**Kirol izena.** Bengoetxea VI  
**Adina.** 22 urte  
**Estrenaldi data.** 02/10/05  
**Estrenaldi lekua.** Iruña

### GARAIPEN-ZERRENDA

**Profesionalen.** Bi sari nagusi irabazi ditu:

▶ Txapeldunorde 2005eko Binakakoan

▶ 2005eko Eguberrikako Torneoko Txapelduna.

**Afizionatu mailan.** Lau sari nagusi irabazi ditu.

▶ 2002. urteko Munduko Txapelduna Banakakoan.

▶ 2002. urteko Espainiako Txapelduna Banakakoan.

▶ 2002. urteko Nafarroako Txapelduna Banakakoan.

▶ 2002. urteko Elgetako Lau t'erdiko Txapelduna.

ratu zituen. Nik, berriz, beste hautaketa bat egin nuen eta pilota azkarragoak aukeratu nituen.

**Capellan aurkari bezala nola ikusten duzu?**

Nik uste oso arriskutsua dela, oso pilotari azkarra da, leherkorra. Gainera, beterranoa da. Beti dena ematen du, eta pilotari indarra ematen dio.

**Pilotari bezala zure burutik zer aspimarratuko zenuke?**

Nire ustez arlo guztietan ongi moldatzen naiz: defentsan, kantxan...

**Txapelketa honetan faborito bezala zein ikusten duzu?**

Aimar Olaizola. Azken urteetako txapelketetan bera izandu da txapelduna, eta faborito argia bera da.

**Labrit frontoian gustura aritzen al zara?**

Bai, asko gustatzen zait. Hasi nintzenetik txapelketa asko jokatu ditut han eta bertan estrenatu nintzen 2002. urtean. Gainera mundukoa ere bertan irabazi nuen urte berean. Gehien gustatzen zaidana da.

**Alde handia nabaritzen al duzu frontoi batetik bestera?**

Frontoi bakoitzak bere materialak ditu eta batzuetan frontisetik azkarrago ateratzen da pilota, bestetan lurrean gelditzen da... Material bera izanda ere, frontoi bakoitza ezberdina izaten da.

## ABEL BARRIOLA

«Abelek ez zion Peñagarikanori jokatzeko utzi; argi utzi zuen maila handia daukela»

## ENTRENAMENDUAK

«Ez dut entrenatzeko denbora gehiegi izan; Uda gogorra izan dut eta partida asko jokatu ditut»

## LABRIT

«Munduko txapelketa Labriten irabazi nuen eta hau da jokorako gehien gustatzen zaidan frontoia»

## CAPELLAN

«Oso pilotari arriskutsua eta azkarra da; beti dena ematen du eta pilotari indarra ematen dio»

## iragarki laburrak ▶

### SALGAI

**Autoa.** BMW M3 urdina, 286 zaldirekin. 1995ekoa. 153.000 kilometro, liburuarekin. 18ko gurpiletako llantak eta tebxua. Egoera oso onean. 14.000 euro. Deitu 943 65 41 43 zenbakira.

### LANA

**Tabernaria.** Neska euskalduna behar da 4 ordu lan egiteko Tolosaldean. Eskarmentatua. Interesatuak dei dezatela 635 74 52 91 telefono zenbakira.

**IX ARTI/AVALDIA**  
GIPUZKOARKEKO ARTISAUEN AZOKA  
ORDIZIA 2006

2006 URRIAK - OCTUBRE  
12 - 13 - 14 - 15  
Ordutegia: 10:30 - 14:00  
Horarioa: 17:00 - 20:30  
**FRONTONES BETI ALAI FRONTOIAK**

## ▶ TOLOSALDEKO HITZA.INFO

'Zeuk idatzi'. Tolosaldeari eta Leitzaldeari buruz dituzun berriak sartzeko aukera ematen dizu gure webguneak *Zeuk idatzi* izeneko atalean.

## KULTURA ▶

# San Estebango XIX. Kultur Astea ekintzaz blai dator

Urriaren 17tik 22ra arte ondo pasatzeko aukerarik ez da faltako auzoan; kultura, musika, denetik izango da

**ERREDAKZIOA**

Ondo pasatzeko aukerarik ez da faltako San Estebango XIX. Kultur Astean. Adin guztietako laguntzat mota ezberdinetako ekintzak antolatu baitituzte.

Herri Kros arrakastatsua erekin ekin zioten festari hereneun; asteartetik aurrera, ordea, ez da deskantsurik izango San Estebanen. Hitzaldia, diaporama, patata tortila lehiaketa, edota musika emanaldiez go-

zatzeko aukera izango da. Baita Zuberoa auzoaren urtemugaz.

San Estebanek «merezki duelako eta ondo pasatzeak preziorik ez duelako», herritar guztiak animatzen dituzte bertan parte hartzera.



lazio Kultur Asteko irudia, gazteboenak altxoraren bila jokoan. OLAIJA ESKITXABEL

**EGITARAUA ▶**
**ASTEARTEA**

**20:00etan.** Hitzaldia: Aldaketa Klimatologikoan oinarrituta (Elhuyar)

**ASTEAZKENA**

**20:00etan.** Diaporama: 1.000.000 km lur azaletik (Josu Iztueta)

**OSTEGUNA**

**19:00etan.** IV. Patata tortila lehiaketa. Ondoren Luntxa  
**22:30ean.** Antzerkia: *Trainspotting* antzezlan

eskainiko du Juanlu Escuderok.

**OSTIRALA**

**23:00etan.** Kontzertua: Nogata Donla afrikar perkusio ikuskizuna.

**Ondoren.** DJ Talo eta Aritz Sound System.

**LARUNBATA**

**16:00etan.** Altxoraren bila eta Mus Txapelketa.  
**16:30ean.** Haur jolasak.  
**18:00etan.** Buruhaundiak.

**19:00etan.** Txokolate jatea.

**00:00etan.** Arima Beltza Blues-Rock taldearen kontzertua. Ondoren, Dj Jawata eta Dj Arabo.

**IGANDEA**

**09:00etan.** Diana Herriko txistulariekin.

**10:00etan.** Trikitixa auzoko baserrietan.

**11:00etan.** Meza auzoko hildakoen alde, San Frantzisko elizan.

**12:00etan.** Toka txapelketa.

## ARETO FUTBOLA ▶



Hegoaldeko jokalariek kiroldegi berrituan. ESTI EZEIZA

## Hegoalde ezin izan zuten txapeldunarekin

Mostolesek oso maila altua erakutsi zuten eta Hegoalde ez zuten asmatu erantzuten

**ERREDAKZIOA**

Partida zaila izan zuten pasaden larunbatean Hegoaldeko Madrilgo Mostoles, ligako txapeldunaren aurka jokatu baitzuen. 2-7ko emaitzarekin, Mostolesek indartsu dagoela eta punta-puntako taldea dela erakutsi zuten.

Hegoalderi, berriz, jarraikortasuna falta zitzaion. Batek, «min harturiko jokalariek zitu elako; bestetik, berriz, hainbat jokalar beranduago hasi direlako lanean taldearekin», taldeak azaldu duenez.

Partidaren hasierari dagokionez, lasai jokatuz hasi ziren etxeokak. Itxaroten jakin zuten eta ondo zaindu zuten defentsa, horregatik, kontraeraso arriskutsuak egiteko aukera izan zuten. Bide horretatik etorri zen etxeokoen lehen gola, Miriam Aranaren jaurtiketa gurutzatuaren bitartez, 1-0 ezarri baitzuten tolosarrak.

Partida bosgarren minutuan zela, Maider Lopezek aurrreratua ikusi zuten aurkariaren atezaina eta baloi garai batekin bigarren gola sartu zuten.

Hegoaldeko, ordea, ez zuten jakin markagailuan Mostolesi ateratako alde aprobetxatzen. Defentsan jaitziz hasi ziren tolosarrak eta Mostolesek aurrea hartu zuten.

Jokoan tinko eta lanean burubelarri zebilen talde aurkaria; hala etorri zen lehen gola 11. minutuan. Minutu bat beranduago, Sarak, baloia urruntzen saiatzen hasi eta etxeok atean sartu zuten gola. Madrilarren arteko jokaldi nahasgarriaren ondoren etorri zen aurrea hartzea ahalbidetuko zion gola. Partida amaitzeko gutxi falta zela, 2-4koa ezarri zuten Pituk.

Partidako bigarren zatian finkatuago zeuden tolosarrak zelaian, baina erritimo eta fisiko faltaren ondorioz etxeok arean zokoratu ziren. Hortaz baliatu zen Mostoles eta erabateko erasoan aritu zen etengabe. Modu horretan etorri ziren Hegoalde atzean utzi zuten 2-5eko, 2-6eko eta 2-7ko golak.

Hurrengo partida Madrilgo Collado de Villabaren aurka jokatuko du 12:30ean, bihar.



▶ hilberriak ▶ urteurrenak ▶ eskertzak

## Gipuzkoan 50.000 etxetara

HITZA guztietan prezio beragatik

**ESKELAK**

19:00ak arte hartzen dira

Tel.: 943 65 56 95

tolosaldean@tolosaldeko-hitza.nfo

ZIZURKIL ▶ MENDIA

LEIRE MONTES

Mendizale askoren ametsa bete ahal izan dute Aitziber Ibarbia (Zizurkil, 1977), Iñaki Urkola (Zizurkil, 1967) eta Kandido Uranga (Andoain, 1946). Zuzurkil bizi da; zortzimilako batera igotzea. Espedizioan parte hartu eta horretarako esperientzia bizitzearrekin nahikoa zutela diote hirurek: baina, gainera, dena ondo irten eta Gasherbrum II-ko (8.035 metro) gailurra jo zuten, uztailearen 22an. Dagoeneko ohiko bizimoduari marra hartu diote berritoki; baina ere, une batek ez dituzte nolanahi ahaztuko Egunkeri lanaldia bukatuta elkar tu dirira Tolosaldeko Larraizko Itzazekin, Zizurkil Golko plazan, eta gustura gogoratu dituzte makina bat sentipen.



Gasherbrum II-ko gailurretik Balmonte glaziareko ikuspegia. HITZA

# Ametsa beteta

Gailurra ez zuten jomuga, esperientziak gozatzea baizik; baina haien lehen zortzimilakora igotzeko «aukera eta zortea» izan dute Aitziber Ibarbia, Iñaki Urkola eta Kandido Uranga mendizale zizurkildarrek: Gasherbrum II



**KANDIDO URANGA**  
MENDIZALEA

«2004an Perun beste bi euskaldun ezagutu, mendian ondo moldatu eta konturatu ginen taldea egina genuela»

**Joan aurreko prestaketa**

Joan aurrekoak, ordea, ez omen dira hain guzok. «Inkagaria eta aspergarris». Irribarra ahoan, halaxe definitu du Ibarbia egin beharreko prestaketaren tartea: «Laguntzaileak bildur, kamiseten salmenta koordinatu, paper eta baimen guztiak lortu, bidala lotu... Azkeneko sei zapez hila betetan ahal izan genuela», postre gozo eta guzti. Baina zer edo zer jatearekin ere konformez izango ginen. Hara joatearekin eta esperientzia bizitzearrekin gustura gauden jadan», dio Urkolak.



**AITZIBER IBARBIA**  
MENDIZALEA

«Gauza askotaz ez naiz gogoratzen; pena dut gailurra izan dugu bazkari gehiago disfrutatu ez izana»

zitzalea diote, gainera. «Fisiko-ki entrenatu ginen gehienbat, tekniko ki gaitzeko. Mendi lasterlariak eta mendi maraiki baliatu genituen horretarako. Eta han ikusi dugu egoki aritu garelako, oso garrantzitsua delako ondo prestatuta joatea. Aitziber, kamisetak eraman ez zituzten bakarrak izan ziren, esbidoz.

Mendiko gaitzak ere ez zituen mendizaleak gehiegi bidaratu. «Zan genituen gure gorabeherak, baina normalean sunaren barruan. Gorputzak ezin du hemen bezala egon, eta sufritu beharra dago. Baina ez zen izan larritzeko moduko



**IÑAKI URKOLA**  
MENDIZALEA

«Mendian gailurra jotzea postrea bezala da; zortea izan dugu bazkari ederraz gozatzeko, postre gozo eta guzti»

ezeri. Botaka saio batzuetan, buruko minari... eta, batez ere, arnas faltari egin behar izan zuten aurre.

Zortea lagun izan zutela diote hirurek, aho batez. Fisiologi ondo egotzen gain, eguraldi ere alde izan zutela dio «Mendian, badakizu, oso sasoko egon zaitzete, baina eguraldiak nahi ez bada... jai duzu». Alberto Zerain espediziolearen esperientzia ere gaitzat jotzen dute: «Jada eskarmen-tua zuen Albertok zortzimilakora koetan, eta joan baino lehen oso argi gurean hiri egongo genitola kasa, hura izango zela gure gidaria. Zailtasunak u-

etan erabakitzunez jokatzekoen zuten, eta horrek asko lagundu digu, askotan guk ez genuela jakinpe zer egin. Gustura daude, taldekideak oso ondo moldatu zirelako elkarrekin, eta hori ez eraza izaten. Han oso azkar joan zen gutia. Zamaletariak lagunduta 6-7 bat eguneko trekking-a egin ondoren, 5.200 metroara jarri zuten oinarriko kampa-mentua uztailearen 22an. 3-4 egun pasatu zituzten bertan, eta esnebetela bigarren kampa-mentua jarrita zuten (6.500 metro). Eguraldi txarra iragar-ritza zegoela eta, oinarriko kampa-mentua itzuli behar izan zuten egun batzuetarako. Bai-na pixkanaka eguraldiak hob-bera egin zuela ikusita, uzta-ilearen 21ean hirugarren kampa-mentua (7.000 metro) abiatu ziren. Eta uztailearen 22a izan zen ametsa egi bihurtu zuten eguna.

**«Luzea eta gogorra»**

00.00etan abiatu ziren gailur-rrera. 08.00etan iritsi zen Al-berto Zerain, Kandido Atzpu-rua 10.00ak aldera, eta Aitz-iber Ibarbia eta Iñaki Urkola 12.30ak inguruan. Altur Las Hayasek ezin izan zuten gailur-rra jo altxeraren eraginagatik. «Luzea eta oso gogorra». Hala gogoratzen dute hirurek

**ESPEDIZIOAREN KRONOLOGIA ▶ EGUNEZ EGUN**

Aitziber Ibarbia espedizioan zehar hartutako oharreakin osatu du Hitzak ondorengo kronologia.

- Ekaikak 24, larunbata.** Pakistanera bidaiari jarri ziren espedizioleak: Bibito-Landres-Islamabad, hegakinez.
- Ekaikak 25, igandea.** Islamabaden bete beharkeo tramiteak egin zituzten.
- Ekaikak 26, astelehena.** Skardu herra abiatu ziren, hegakinez. 25 kilokilo jarri zituzten makina.
- Ekaikak 28, asteazkena.** Skardutik Askolera auzo joan ziren. Heri honetan amaitzen dira errepideak, eta bertan bizi dira zamaletariak.
- Ekaikak 29, osteguna.** 50 zamaletari kontratatu zituzten

- beharreko gauza gutxiak eraman ahal izateko. Oinez ekin zitien denbora; gutzira, 160 kilometro.
- Ekaikak 30, ostirala.** Bardumaletik Pajura joan ziren.
- Utaiak 1, larunbata.** Abseiden eguna. Pajur ikusteko tartea hartu zuten. Hau da azken gure berdea.
- Utaiak 2-5, igandea-asteazkena.** Pajutik oinarriko kampa-mentura igo ziren (5.200 metro). Uste baino bi egun lehenago iritsi ziren hura.
- Utaiak 6 eta 7, osteguna eta ostirala.** Abseiden egunak. Kampa-mentu bukundua eta bestelako lanak egiteko aprobetxatu zuten.
- Utaiak 8, larunbata.** Gorputza altxerari egokituko



Gili, Karakorumen. HITZA

lehen arketak hasi zituzten. Pikanaka altuera hartzen joan ziren. Lehen egunean Platara iritsi ziren, 5.700 metrofara.

**Utaiak 9, igandea.** Altuerak

eragindako lehen ondozak sumatu zituzten. **Utaiak 10, astelehena.** Lehen kampa-mentutik bigarren kampa-mentura (6.500 metro) igo ziren. **Utaiak 11, asteartea.** Eguraldi berra iragami zutela eta, oinarriko kampa-mentura jaitsi ziren. **Utaiak 12-15, asteazkena-larunbata.** Elurra eta haizeak handiak. **Utaiak 16, igandea.** Elur jazo arnaskagatik kampa-mentua gertatu ziren. **Utaiak 17, astelehena.** Gora abiatu ziren espedizioleak, denak jarritako bitan eta zuden jakin gabe. **Utaiak 18, asteartea.** Abseiden eguna. **Utaiak 19, asteazkena.**

Lehen kampa-mentutik bigarrena igo ziren. **Utaiak 20, osteguna.** Elurra zela eta, bertan egon behar izan zuten. **Utaiak 21, ostirala.** Eguraldi ona zegoela aprobetxatu, hirugarren kampa-mentura abiatu ziren (7.000 metro). **Utaiak 22, larunbata.** 00.00etan abiatu ziren. Alberto Zerain 08.00ak aldera iritsi zen gailurra. Kandido Atzpurua 10.00ak inguruan, eta Aitziber Ibarbia eta Iñaki Urkola 12.30ak aldera. Altur Las Hayas espedizioleak ezin izan zuten gailurra jo altxeraren eraginagatik. Patsata gauza eta beharkeo bidari ekin zituzten. Abiatu izan 19 ordu iritsi ziren hirugarren kampa-mentura.



Goko argazkian, Iñaki Urkola (ezkerrean) eta Aitziber Ibarbia, Gasherbrum II-ko gailurrean; beheko argazkian, Kandido Uranga (eskuinean) eta Alberto Zerain. HITZA

nik. Eta zikinkeria baxter guz-tietan... Ibarbiari ezeregin gabe pasatako denborak luze egin zitzaizkion: «Zer egin den orain? Pentastan muen asotan. Ez dago aukera handirik, eta aspergarririk egin diera horiek. Azkenean seiko uretan aritzen ginen, mus trapeziolarien bati ere antolatua gurean... monotonia hausteko. Baina, azkenean, hori ere monotonia egin zitzaigun».

**Erreparatze prest?**

Esperientziarekin gozatu egin dute eskualdeko mendizaleak. «Jende asko ezagutu dugu, leku berriak, gure burua ere probatu dugu... Ederra izan da».

Esker oneko hitzak dituzte lagundu diezenentzat: «Zizurkilgo Udala, Lur-lan elkartera, Belca Alcat, Aralar Kirolak, Kanazar harrobiak, kamisetak erosi dituguten gutiak...».

Erreparatze prest dira, baina ez dute itur-ituan bazezko ematen. «Ezango bazenit zuz-terekin egin beharkeo gutia ez dudala egin behar, behar bada animatuko nintzateke. Dena den, hau egin da berriz aso-ktan egin. Diru oso suposatzen du, oporrak baldintzatzen ditu, lantokian eragiten du... mugak badaude, dio Ibarbiak. Uranga trekking-a egitera joango li-tateke berriro gustara.

«Eguneroke monotoniarekin apurtzeko bidea» da mendia Ibarbiarentzat. «Kirola eta es-fer-tza lasako, naturaz eta men- dia beraz gozatzea» Uranga- rentzat. Eta kirola eta esfortzu fisiko egiteko aukera-birarte-ko Urkolarentzat. Baita bait- tetan eta desberdin askotan ulertzen dute mendia. Baina hi- rurek ez dute ulertzen bizitza mendirik gabe.





JESUS ARTETXE ▶ BILADIKO GIPUZKOAKO ARDURADUNA

# «Une honetan lehentasuna Palestinako estatua sortzea da»

Ekialde Ertaineko gatazkak ulertzeko historian atzera egin eta Palestinako okupazioaren egoera ulertu behar dela dio Jesus Artetxe tolosarrak

IÑIGO ASENSIO

Palestinako okupazioarekin kezkatuta bizi da aspaldi. Kostata uler dezake Europan bizi dugun arduragabetasuna. Biladi Kultur Zentroko Gipuzkoako arduraduna da eta Palestinako egoerari buruz jendearen sentsibilizazioaren aritzen dira bertan lanean. Israelgo eta Palestinako egoera aztertzen urteak egin ditu eta joandako abuztuan hara bidaiatu eta egoera gertutik bizitzeko aukera izan zuen. Okupazioari buruz dituen kezken inguruan eta bidaiaren honetan ikusitakoaz mintzatu da Jesus Artetxe tolosarra TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAREKIN.

## Zein dira Biladi Kultur Zentroaren helburu nagusiak?

Gure lehen helburua sentsibilizazioa da. Gizartearengana eta estamentu publikoetara heltzeko moduak bilatzean oinarritzen da gure lana. Informazioa da sentsibilizaziorako bide zuzenena eta horretan aritzen gara.

## Zein dira informazio behar nagusiak?

Askotan, aski jakinak diren gauzak gogoratzean oinarritzen gara, historia berreskuratzen, oroimena garrantzitsua baita. Erraza da Palestinaren inguruko gaietako jendea nekazten bukatzea. Berriak beti dira berdinak; biolentzia eta biolentzia gehiago. Beharrezkoa da, baina, Palestinako erresistentzia kasualitate hutsa ez dela jakitea. Ez dela Palestinarrek gustuagatik egiten duten zer-bait.

## Urteen joan-etorriarekin arazo guztien oinarriak ahazteko joera izaten dugu, ezta?

Hala da. Hortxe dago maiz arazoa. Hori utzi nahi dugu garbi, non hasten den biolentzia, nork ematen dion hasiera probokazioari eta nola hortik aurrera arazoa hazten doan. Horregatik sentsibilizazioa alde batetik gure gizartearengana eta bestetik gure politikariengana. Israelek ez dezan orain arteko lehentasunezko tratua izan.

## Lehentasunezko tratua noren aldetik?

Ba, noski, Europaren aldetik. Europak Estatu Batuekiko duen menpekutasunaren on-



IÑIGO ASENSIO

## EUSKAL ORDEZKARIAK

«Begoña Lasagabaster Fatah-ren aldeko kanpaina egiten ikustea tokatu zaigu; egoera lotsagarria da»

## TRAIZIOA

«Arafat, Abu Mazen eta beraien inguruko 72.000 familiek jasotzen dituzte beste palestinar guztien sufrimenduaren onurak»

## SENTSIBILIZAZIOA

«Hitzaldiak emateko, ikus-entzunezko materiala proiektatzeko eta edozer gauza doan azaltzeko prest nago»

dorioz ematen da hori. Azkenaldian ondorio garbi batetara iritsi gara; gatazka ez da Palestinan, Europan bertan baizik. Europa delako Palestinaren okupazioa baimendu eta bideratu duena. Palestinarren lurraldea ez defendatzeaz gain, 48an Israelen estatuaren bozkaketan izandago hainbat irregulartasunen arduradun ere bada.

## Hainbat pauso eman dira egoera bideratzen saiatzeko. Nahikoa egiten ari al da gatazkaren bi aldeetatik?

Ezin uler daiteke gatazka palestinarrek eta israeldarrek arduratzen duten biolentzia bezala. Arazoa okupazioan jaiotzen da, hori ezin da ahaztu. Bere lurraldetik kanpora bota nahi duten palestinarren erreakzioa ulertu beharra dago; hori erresistentzia da, ez terrorismoa. Terrorismoa Israelgo estatuaren sorrera garaian hasi zen. Terrorismo bidez inposatu zen judutarrentzako beharrezkoa omen zen lurralde haien

okupazioa. Errepide Orria eta bestelakoak mendebaldekoen kontzientzia lasaitzeko beste-rik ez dira izan. Hor ez da benetako erabakirik hartu, eta bitartean, palestinarrek beraien lurralde galtzen jarraitzen dute. Orain ezin pentsa daiteke bake eraz batean, palestinarrek agian onartuko lukete orain arte galdutako hainbat lurralde ez berreskuratzea, baina israeldarrek ez dira konformatuko lortu dutenarekin. 67ra arte egindako okupazioan oinarritzen zen hasiera batean negoziatioa. Urteen joan-etorriarekin guztia pikutara joan da. Harresiek gero eta gehiago itozten dituzte palestinarrek, gero eta lurralde gehiago lapurtzen dizkiete. Laster Jeriko bera ere Israelen menpe geratuko da osorik. Jerusalem okupatuta dago ia, eta orduan, Jerikok ere ez du balioko palestinarren hiriburu bezala. Lotsagarria da. Zein dira Europatik eman behar harko liratekeen hurrengo pausoak?

Mendebaldeak zurikerietan aritzeari utzi beharko lioke. Palestinarrei diru laguntzak bidualtzeko ez du ezertarako balio ondoren israeldarren astakeria guztiak baimentzen badira. Palestinako estatuaren eraketa da lehentasuna orain, eta horrekin ere jokoan ari dira.

## Jarrera aldaketarik nabaritzen al da palestinar lurraldean?

Denborarekin gatazkan parte-hartzerik ez zutela ueste zuten zenbait talde konturatu dira israeldarren okupazioak denei eragiten diela. Elizak, Belengo kristauak eskatu zuten gatazkatik albo batera geratzeko, beraiek euren lurraldea zuten bitartean lasai egoteko. Borroka ez zela bidea eta beste jarrera bat erakutsi behar zela. Gauzak aldatu dira, bai. Harresien eraikitzearekin, Belengo kristauen hainbat eta hainbat denbira, turismotik bizi zirenak, beraien diru iturri nagusi gabe geratu dira, erromesik gabe, eta orduan iritsi dira aldake-

tak. Azken hauteskundeetan, kristauen bozken gehiengoa ez da botere palestinarri zuzendu, Hamas-i baizik.

## Eta Europan?

Mendebaldeko herrien jarrera lotsagarria da. Hurrunezi joan gabe Begoña Lasagabaster Fatah-ren aldeko kanpaina egiten ikustea tokatu zaigu. Hemen erabakitze eskubidea eskatu eta han jendearen manipulazioa egitea ezin da jasan. Ardura politiko falta jasanezina da. Jendea irazte erraz ahazten zaizkio, baina Osloko akordioan, Yasser Arafatek ehun mila dolarren truke sinatu zuen gerora Palestina traizionatuko zuten akordioa. Abu Mazen, Arafat bera eta hauen inguruan mugitzen direnak arazorik gabe bizi dira Palestinan, 72.000 familia dira Fatah delakoaren inguruan; beraiek jasotzen dituzte palestinarren sufrimenduaren onurak. Alde guztietatik jasan behar izaten dituzte traizioak. OLP sortu zenean zeuden helburuak txantxa besterik ez dira gaur egun. Botere goseak eta diruak, hasieran zuen izakera eta zentzua aldatu ditu guztiz. Estatu Batuetan errentaren aitortpena egitean desgrabatu egiten du israeldarrentzat diru laguntzak ematea. Lau mila miloi dolar ematen dituzte Estatu Batuek urtero Israelentzat, armak eta bestelakoak albo batera utzita. Ez dakit. Mila egoera dira, ulertu ezin daitezkenak. Mendebaldeko demokraziaren arduratza Palestinako zapaltzaiek, eta terrorismo derituz hori, zapalkuntza horren aurkako erresistentzia.

## Lurraren defentsa galdue?

Oraintxe gero eta zailagoa da palestinarrek diren lurralde berreskuratzea. Arafat eta bere ingurukoak boterearen egonkortuak zeuden, orain Hamas-en garaipenarekin egoera desorekatu xamar dago, zailak izango dira aurrera pausoak. Fatah-k Palestinako lurren defentsari eta zapalkuntzari aurre egiteari heldu beharrean, Hamas-en aurkako jarrerari heldu dio. Orain iristen den dirua beraien kontrolpean ez dagoenez, kezkatzen hasi dira.

## Benetan kezkatzen zaitu egoera honek, zer egin daiteke jendea egoeraz jabetzeko?

Kezkatuko ez nau ba. Aurreko mendean sortu zen inbasioa da, okupazio zitala, lur lapurreta. Niretzat Palestina guztia da. Material, dokumentu eta informazio mordoa lortu dut azken urteetan. Hitzaldiak emateko, ikus-entzunezko materiala proiektatzeko eta edozer gauza doan azaltzeko prest nago. Jendeak egoera ezagutzeko pre-miazkoa da.



Jerusalemgo gune historikoaren sarbidean Israeldarren kontrolak. J. A.



Iparraldetik ere, harresiek palestinarren lurra murrizten dute. I.ASENSIO

## Mordechai Vanunurekin

Mordechai Vanunu intelektual eta hitzaldilariarekin biltzeko aukera izan zuen Artetxek; «esperientzia bikaina» izan dela dio

**A**buztuan egin zuen bidaia Palestinara Artetxek. Palestina eta Israelgo egoera aztertu du tertetan, baina oraingoan gatazka gertutik ezagutzeko beharrak bultzata, bertako errealitatea izan du aurrez aurre. «Ikaratuta» iritsi da bertatik, ezagututakoak bere palestinarrenganako defentsa sentimendua areagotu duelarik. Jerusalemeko zegoela Mordechai Vanunurekin egoteko aukera izan zuen. Vanunu marokoar jatorriko judutarra da. Injenieri nuklearra izanik, Israelen armamentu nuklear proiektua gertutik ezagutu eta salatzeo aukera izan zuen. Errealitate hau erakusten zuen hainbat frogatortu zituen arren, Israeliek traidore izendatu eta bertatik alde egin beharra izan zuen. Australia, Ingalaterra eta Europako beste hainbat lurraldetan bizi izan zen, han eta hemen hitzaldiak eskainiz eta israeldarren helburu nuklearen aurka agertuz. Erroman bahitu eta israeldarren menpe jarri zuten arte. 18 urteko kartzela zigorra egotzi zioten, haietako 16 inkomunikaturik pasa zituelarik. «Herria da historian, nahiz eta judutar askok traidoretzat izan.

«Defendatu dit indarrez bere ideiak eta egun izugarriko kontrolpean bizi da» dio Artetxek. Beregan hurbiltzeko


baimena eskatu behar da, el-karrizketatu nahi bada, egingo zaizkion galderak aurkeztu behar dira Israelgo agintaritzaren aurrean eta maiz izan da atxilotua azken urteetan. «Gizon handia da. Urriaren amaieran hainbat Bakearen Nobel saridunekin biltzeko intenzioa du. Jerusalem, baina dagoeneko mehatxatu dute. Hauekin bilduz gero 2 urteko kartzela zigorra egotziko diote berriro. Ezin uler daiteke ezer. Honek ez du zentzurik» aipatzen du etsita Jesus Artetxek. «Israelen 400 misil nuklear inguru daude, horietatik 60 bat Europara begira. Ez al dio inori axola? Garbi dago nazioarteko akordioak batzuk bakarrik betetzeko eginak daudela» gehitu du tolosarrak. Vanunurekin hizketan aritu zela, Euskal Herriari hitzaldiren bat emateko aukera proposatu zion Artetxek baina Vanunuren erantzuna espero zena izan zen. «Ezindut Jerusalemetik irten, ezin dut inora joan». Hala eta guztiz ere Artetxerentzat «esperientzia bikaina» izan zen hain pertsonaia garrantzitsua aurrez aurre ezagutzeko aukera izatea.

### Israeldarren gehiegitasunak

Artetxek bere bidaian ezagutu duen egoera aztertzen jarrita, israeldarren probokazioak az-

pimarratuko lituzkela dio. «Ur emaria mozten diete palestinarrei edozein unetan, frankotirtzaileek beraien ur edukiontzia zulatzen dituzte hauek zirikatzeko, nahi dutena egiten dute inork ezer esan gabe». Egoera latzak ikusteko aukera ere izan du bere bidaian. «Poli-zia kontrolatan ehunka pertsona sartzen dituzte 40 gradutik gorako geletan. Jendea mugitu ezinik egoten da. Askok konortea galtzen dute. Berdin zaie. Haurdun zegoen emakume bat odoljariora eten ezinik hil zen, militarrek ezer egiten uzten ez zieten bitartean. Bere senarrak haurrak senideekin utzi, txaleko lehargarri bat hartu eta kontrol horretan lehertarazi zuen, 6 militar eta bere burua hilez. Hori bilatzen dute, probokazio hutsa da».

Bakearengatik galdetzean, Artetxek ez du etorkizun oparoa ikusten. «Hiru ardatz oinarritziko dituzte negoziazioak. Israel 67 lerroa itzultzea, preso politikoaren egoera normalizatzea eta lau miloi errefuxiatu ingururi laguntzak eskaintzea. Palestinarren barkatzeko prest daude, Koranak hala dioelako, baina israeldarrak beraien ez den lurralde batean elkarbizitzeko jarrera ez dute erakutsi, gehiago sentitzen dira» gehitzen du Jesus Artetxek pairakor.



Txuriz Palestinan finkaturiko kolonia israeldarrak. «Gero eta lur gehiago izango dira israeliek okupatutakoak». HIRUGARREN MUNDUA ETA BAKEA



**Mahala**  
BASERRIKO PRODUKTU NATURALAK



**Jogurta**

Mahala baserria - 20491 LEABURU  
Tel.-Faxa: 943 673 499  
Tel. Mug.: 689 805 633



**ARAMBURU**

Salgai (Iruja), Pisu.  
Salgai (Tolosa), Pisu San Frantzisko, 17. 140 m2. Bistekin.  
Salgai (Tolosa), Pisu Larramendi kalean.  
Salgai (Tolosa).  
Ileapaindegia lurre azoan.  
Salgai (Tolosa).  
Belardenda, kale Nagusian.  
Salgai (Tolosako lurren), Ofiziano lokala.  
Salgai Garajeak, Ibarren eta Tolosan.  
Alokatzeko, Pisu. Estrenatzeko estazioaren ondoan, garajearekin.  
Alokatzeko, Garajeak, Araba etorbidean, San Frantzisko eta lurre azoan.  
Alokatzeko (Tolosa).  
Lokala, Herrementari kalean.

**943 65 17 13 / 677 46 09 16**



ESKUALDEKO EGUNKARIA ▶ 2006ko urriaren 14a, larunbata ▶ IV. urtea

GAURKO  
EGURALDIA

goizez



arratsaldez



beroena

19

hotzena

17

BIHARKO  
EGURALDIA

goizez



arratsaldez



HITZA-KO BEZEROEN ARRETA ZENBAKIA

(zalantzak argitzeko, harpidetan egiteko...)

902 82 02 01

**AGENDA ▶**

**DEIALDIAK**

**Amezketaketa.** 23:00etan bertso saioa, Anjel Larrañagarekin eta Joxe Agirrerekin herriko plazan. Ondoren, Kupela taldearen emanaldia, herriko plazan.  
**Tolosa.** Indiako Samanvaya taldearen dantza klasikoko emanaldia izango da ikusgai, Leidor aretoan, 20:15etik aurrera. Sarrera, 10 euro.  
**Tolosa.** Joxi eta Joxeanen eraiketaren 23. urtemuga izango da etzi, eta hori dela eta, ekitaldia egingo dute 19:30ean Benta Haundiko euren omenezko monolitoaren aurrean. Lore eskaintza egingo dute, aurrekoa dantzatzeko dute ondoren, txalaparta saioa izango da, eta horren ostean hitzaldia.

**ERAKUSKETAK**

**Alegia.** Maria Rosario Ormazabalaren koadroen erakusketa azaroaren 5era arte ikusgai, Jubilatuen tabernan.  
**Ibarra.** Inaki Vergara argazkilaria *Artzainaren Bizitza* txuri beltzeko 35 argazkien erakusketa ikusgai Kultur Etxean. Etzi izango da azken eguna.  
**Tolosa.** *Esperientziak*, XX. mendeko memoriaren berreskuratze proiektuko elkarrizketen bideoak ikusgai, Aranburu jauregian eta Gipuzkoako Artxibo orokorrean.

**KIROLAK**

**Villabona.** Enrike Abril Errebote Txapelketako finalurrekoak jokatzeko dituzte bihar. Oiarzunen, Uztaritzeko Kapito Harri eta



**Kilo eta 600 gramoko onddo «ikusgarria»**

**VILLABONA ▶** Rufino Mujika billabonatarak bildu berri du kilo bat eta 600 gramo pisatu duen onddo ikusgarri hauxe. Nafarroan aritu zen onddo biltzen Mujika, Leitza aldean, hain zuzen ere. «Ez da ez nolana hokoa, izan ere, enbor bere-

tik sei perretxiko ateratzen zaizkio». Billabonatarra bezala, asko eta asko dira onddoak dastatzeko aukera izan dutenak, egunotako ilargi aldaketak, euriak eta tenperatura beroak onddoak sortzeko baldintza ezin hobeak baitira. HITZA

Hazparneko Noizbait taldeak lehiatuko dira. Villabonako Errebote plazan, 11:00etan Behar Zanako taldeak Donibane Lohitzuneko Luzeaz Gazteren (egungo frantziako txapeldunak) aurka jokatzeko du.

**ZINEMA**

**Tolosa.** *El viento que agita la cebada* filma ikusgai, bihar, Leidor aretoan, 19:30ean, 4,5 euroren truke.  
**Tolosa.** *Garfield 2* gaztetxoentzako filma ikusgai, bihar, Leidor aretoan, 17:00etan.

**GUARDIAKO FARMAZIAK**

**Gaur**  
**Leitza.** Larraia, MI. Elbarren, 95. 112.  
**Tolosa.** Olarreaga, J. J. Martin Jose Iraola, 10. 943 67 24 38.

**IRRATIA**

**Txolarre irratiak (107.5, 101.2 FM)**  
**11:00-14:00.** *Tolosaldeko ahotsa* magazina: eguraldia Joxe Landarekin, HITZAREN errepasoa, elkarrizketak, agenda, lehiaketa, disko eskainiak...  
**18:00-19:00.** *Adi Guri* irratsaioa, Anoetako Herri Ikastolako DBHko 1. eta 2. mailako ikasleen saioa.  
**21:00-22:00.** *Zaharrak berri.*  
**22:00-23:00.** *Street.*

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

**AGURRAK ▶**



**URTE ASKOAN**  
Lierni. Gaur 5 urte. Zorionak eta muxu handi bat, aitabo, amabo, Jurgi eta bereziki Kattalinen partetik.

**Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.**

- ▶ HITZAREN egoitza Tolosan Araba etorbidea, 5 behea
- ▶ HITZAREN egoitza Leitza Udaletxeko bulegoa

**hitza**  
agurren tartea

Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...



**jantzi**  
**hitza**ren  
**jertseak**

HITZAREN egoitzetan salgai